



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko otsailaren 16a

33. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (3. or.).
- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (5. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa. Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan dadin ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan oinarrituta egotea haien diseinua. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko sinbolo berekiekiko bere babes eta konpromisoa adierazten ditu, eta arbuiatu egiten du Nafarroako erakundeetan ikurrina paratzea. José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu zentralari exigitzen zaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (10. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiatarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek kasuan kasuko jarduerarako alde aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko araudi indardunarekin bat. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (12. or.).

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko. Bakartxo Ruiz Jaso andre-ak aurkeztu du (13. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da bermatzen ari delako nafar ikasle guztiek D ereduan ikasteko duten eskubidea. Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (14. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskola-mapa eta kasuko ikastetxe-sarea gaurkotu ditzan eta horien plangintzaren jarraipena egin dezan. Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkeztu du (15. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana. Mozioa erretiratzea (16. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera hezkuntza erkidegoan. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko. Mozioa erretiratzea (17. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira beren eskumen-eremuan talka-plan bat aplikatu dezaten, honako helburu hauek izanen dituena: eskola-porrota, segregazio goiztiarra eta ikasleen kanporatzea geldiaraztea, ikastetxeetan demokrazia berrezartzea, ekitatea hobetzea eta Unibertsitateko irakasleen kidegoetara sartzeko akreditazio nazionala ezartzen duen Errege Dekretua geldiaraztea. Mozioa erretiratzea (18. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz ditzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan. Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea (18. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Hiesa gaixotasun infekzio-transmitigarri gisa hartzea hemendik aitzina. Eledunen Batzarrak onetsia (19. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duena, eta irakurketa bakarrean izapidetzea eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.
3. Foru lege proposamen hori irakurketa bakoitzeko prozeduraz izapidetzea.
4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetzen duen Foru Lege proposamena

ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Foru Parlamentuak 1981eko urriaren 26an hartutako Erabakiaren bidez onetsi zen Nafarroako banderari eta armariari buruzko Araua. Hauxe dio haren 4. artikulua: "Arau honen funtsezko edukia Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeko oinarrien negoziatioetatik irten den testuari gehituko zaio".

Nafarroako banderari eta armariari buruzko Arau horretan xedatutakoa betetze aldera, Foru Diputazioak 1981eko azaroaren 12ko Erabakiaren bidez onetsi zuen Nafarroako armariaren grabatuaren eredu ofiziala, bai eta haren banderarena ere.

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 12/1982 Lege Organikoak Nafarroako armaria eta bandera definitzen ditu 7. artikuluan, honela:

"1. Nafarroako armaria osaturik dago hondo gorriaren gainean paraturiko urrezko kateez, kate-mailazko zortzi besoen elkargunean esmeralda bat dutela, eta orenen gainean, berriz, errege koroa, antzinako Nafarroako Erresumaren sinbologia.

2. Nafarroako bandera gorria da, erdian armaria duela."

Nafarroako sinboloei buruzko maiatzaren 28ko 7/1986 Foru Legearen bidez zehaztu zen ezen Nafarroako sinboloak zirela arestian aipatu artikuluan eta Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko 12/1982 Lege Organikoan jada jasotakoak; hau da, bandera eta armaria; eta, horiez gain, ereserki gisa Gorteen Himnoa, zeinak, zioen azalpenean azaltzen denez, jatorria Erresumaren sarrerarako martxa-n baitu, Nafarro-

ako Gortek beren bilkurak egitera Ederraren Aretorantz iragaten zirenean Iruñeko Katedralaren klaustroan interpretatua.

Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legearen zioen azalpenean honela esaten da: "Gai honi buruzko aurreko lege-arauzuek ez dute izan Nafarroan behar adina elementu juridiko botere publikoek modua izan zezaten eragingarritasunez zuzendu ahal izateko afera honetan izan diren eta gaur egun ere izaten diren irregulartasun ugari: zenbait udaletan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera ofiziala baizik ez dute jartzen, beste batzuetan Euskadiko Autonomia Erkidegoko bandera Espainiakoarekin eta Nafarroakoarekin batera, nahiz eta ageri-agerikoa den Nafarroa ez dela autonomia erkidego horretako parte. Euskadiko erkidegoaren sinboloa agertzekak irudi okerra eman dezake, erakundeen aldetiko errealtate faltsu batena hain zuzen.

24/2003 Foru Legeak, Nafarroaren oinarrizko hiru sinboloen erabilera erabat arautzeaz gain, "botere publikoei egintza jurisdikzional eta administratiboetarako aukerak eskaini nahi dizkie sinbolo horien erabilera sustatzeko eta, bereziki, babesteko". Horren ondorioz, Nafarroako Gobernuak eta Espainiako Gobernuaren Nafarroako Ordezkaritzak hainbat demanda aurkeztu dituzte administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, foru lege horren 4.1. artikuluan oinarrituta, zeinak ondokoa xedatzen baitu: "Foru lege honetan xedatutakoaren kontra doazen egintzak eta ebazpenak, edozein korporazio edo aginterenak, erabat deusezak izanen dira. Horien inpugnaziorako ekintza publikoa izanen da eta Nafarroako Gobernuak administrazioarekiko auzietako jurisdikzioan inpugnatu ahalko ditu, errekerimendua egin ondotik betiere, toki araubideari buruzko legerian ezarritako baldintzetan". Halaber, "administrazio arauhaustetzat hartuko dira lege honetan jasotako

aginduak urratzea dakarten jokabideak": Laugarren artikulua araberan, "eraikuntza edo egoitza administratiboetan Nafarroako bandera bereizgarri gisa publikoki erabiltzeak ezinezko bihurtzen du haren ondoan aldi berean besterik jartzea, non ez den Espainiako, Europako, eta Nafarroako toki entitate bakoitzak duena"; horrenbestez, zuzenbidez guztiz deuseza da bestelako banderen erabilera.

1981ean lehen aldiz arautu zenetik Nafarroako armarraren eta banderaren erabilera, metaturiko esperientziak erakutsi du ofizialki Nafarroako sinbolo gisa ezarritakoak ez diren beste batzuen bazterketaren eta debekuaren bideak ez duela ezer ere konpontzen. Aldiz, azken batean bultzatu den lege-arauketak bidea eman du konfrontaziorako eta toki entitate desberdinetan sinbolo ofizialekin batera gehiengoan onespina zuten sinboloen debekurako.

Nafarroan akordio politiko eta instituzionala lortu arte, herritarren asmo zilegi guztiak biltzen dituen eta barne-hartzailea den sinboloen foru lege berri bati buruzkoa, beharrezkoa da indarrean dagoen Sinboloei buruzko Foru Legea indargabetea, sinboloei buruzko tolerantzia- eta integrazio-politika demokratiko bat garatu ahal izateko.

Artikulu bakarra. Nafarroako Sinboloei buruzko apirilaren 4ko 24/2003 Foru Legea indargabetez da.

Lehenengo xedapen iragankorra. Sinboloei buruzko foru lege berri bat onetsi arte, Nafarroako ereserki gisa mantenduko da "Gorteen Himnoa" deiturikoa.

Azken xedapena. Indarra hartzea.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-tzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintza-ekimena erabiliz, Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Ezkerreko-Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak Foru Lege proposamena aurkeztu dute, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzekoa.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5 b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzekoa

ZIOEN AZALPENEA

18/1986 Foru legeak Nafarroako hizkuntza eremu bakoitza osatzen zuten udalerriak zehaztu zituen garai hartako legegileak bidezkoztat jo zituen irizpide soziolinguistikoen arabera. Otsailaren 23ko 2/2010 Foru Legearen bidez banaketa hori aldatu egin zen, arrazoi berberak tarteko.

Hogeita hamar urte baino gehiago pasa dira arau hura onetsi zenetik, eta zazpi, azkenekoz aldatu zenetik; eta, agerikoa denez, errealitate

soziolinguistikoak Nafarroan izan duen bilakaerak botere publikoen erantzuna eskatzen du.

Inguruabar hori ikusten da gaur egun eremu ez euskaldunean dauden foru erkidegoko zenbait udalerritan dagoen eskari sozialean; izan ere, azken hilabeteotan udalerririk horietako udalbatzek zenbait erabaki onetsi dituzte, eskatzekoak behar diren legegintza ekimenak abian jar daitezten udalerririk horiek "eremu misto" deiturikoan sartzeko, indarrean dagoen hizkuntza-zonifikazioa mantentzen den bitartean, udalerririk horietan euskara hizkuntza berekitzat jotzen baita.

Hori dela-eta, foru lege honen xedea da eremu mistoa udalerririk horietara zabaltzea, halaxe erabaki baitute udal horiek, eta egungo Euskararen Foru Legea errealitate administratibo eta linguistikora egokitzea.

Artikulu bakarra. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5.1. artikuluko b) letra aldatzen da eta testu hau izanen du:

b) Eremu mistoa, ondoko udalerririk osatua: Aباigar, Abartzuza, Aibar, Amekoabarrena, Agoitz, Antsoain, Antzin, Aranguren, Artzibar, Artazu, Atarrabia, Atetz, Barañain, Belaskoain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Cabredo, Deierri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Goñi, Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Mendigorria, Murieta, Odieta, Olaiibar, Olo, Oltza, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uharte, Urzainki, Uzta-roze, Villatuerta, Zabaltza, Zirauki, Ziritza, Zizur, Zizur Nagusia eta Zuñiga”

Eremu misto hori automatikoki hedatu ahalko da Noain-Elortzibarko udalera, baldin eta toki korporazio horretako udalbatzak gehiengo osoz hartzen badu erabakia. Erabakiak eragingarritasun osoa izan dezan, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Azken xedapena.

Foru lege honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa.

IZQUIERDA-EZKERRA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda-Ezkerra foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legea gara dezan, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzkoa.

Bizitzaren amaierako prozesuaren inguruan gogoeta, begirada eta ikuspegi asko sortzen dira. Gure bizipen, balio humanista edo erlijio-sinesmenetatik abiatuta, toki ezberdinetatik begiratzen diogu bizitzaren amaierari. Baina, gure ustez, irtenbidea berbera izan behar da beti: pertsonaren duintasuna.

Hain zuzen, jarrera horretan oinarrituta idatzi zen Bizitzaren amaieran pertsonen eskubideak eta duintasuna ziurtatzeari buruzko Foru Legea. Proposamena aho batez onetsi zuen Nafarroako Parlamentuak.

Legearen zioen azalpenean luze azaltzen den moduan, egungo gizarteetan eta, batez ere, gartuetan —eta horixe da gure erkidegoaren kasua—, bizi-itxaropenaren izugarritzko aldaketak gertatzen ari dira. Horren ondorio logikoa izan da populazioa zahartzea, eta horrek, halaber, sortu du gaixotasun kronikoak, itzulezinak eta baliaezintasuna dakartenak asko areagotzea. Dena den, medikuntza izandako aurrerabide nabarmenei esker, bizifuntzioak orain arte pentsaezinak ziren mugetaraino luzatzen ahal dira.

Bizitzaren amaieraren testuinguru hori, gizarte demokratikoetan, egituratuta dago pertsonaren askatasunarekiko, erlijio-sinesmenekiko eta pertsonak gaixoa izan zehar gordetako borondate-autonomiarekiko errespetuaren bitartez, eta gailurrera iristen da hiltze-prozesuan, hiltzea bizitzaren azken parte bezala ulertuta.

Nafarroan hiltzen diren pertsonen erdiak, gutxi gorabehera, gaixotasun kronikoko aldi bat jasaten dute, zeinetan gehitu egiten baitira haien beharrezan: egoera berria kontrolatzekoa, gaixoarentzako eta haren familiarentzako laguntza emozionala eskuratzekoa, sintoma gogaikarriak arintzekoa —mina, beroaldia, nekea edo aldarrestutasuna—. Era berean, ugariagoak dira haien eskubideen urraketa ekar dezaketen egoerak, osasun arloko profesional askorengana jo behar izaten baitute, eta proba. tratamendu eta abar asko egin nahiz jaso; halaber, gaixoen bizitzaren funtsezko alderdiak ukitzen dituzten erabakiak hartu behar izaten dira.

Lege honen xedea da, beraz, honakoak arautzea: pertsonaren eskubideen erabilera hiltze-prozesuan, gaixo horiek artatzen dituzten osasun arloko langileen betebeharrak, eta prozesu horri dagokionez erakunde sanitarioek eman beharrekoak izanen diren bermeak. Lege honek kakotansia ezabatzearen alde egin nahi du; heriotza -txarra, alegia. Horretarako, zuzenbide-laguntza eskaintzen die zainketa aringarri hauek behar eta onartzen dituzten pertsona eta familia guztiei, edonon daudelarik ere –larrialdietan, ospitalean, beren etxeetan, zaharren egoitzetan, Nafarroako edozein eskualdetan...–, osasungintzako langileek haiekiko artatze-lanean dituzten betebeharrak zein diren argi utziz.

Baina legea ez da behar hainbeste garatu. Artikuluek eta xedapenek ezartzen zuten betebeharrak instituzionala ez da oraindik ere bete. Legearen hedapena, osasungintzako langileen prestakuntza, legearen betetze-mailari buruzko autoebalua-

zio-azterlana edo azken borondateen adierazpenarako sarbide unibertsala bezalako neurriak ez dira oraindik gauzatu, zazpi urte iragan ondoren.

Horregatik guztiagatik, Nafarroako Parlamentuak erabakitzen du:

1. Nafarroako Gobernua premiatzea heriotza duinaren behatoki bat sor dezan, Hiltzeko prozesuan pertsonaren duintasunari dagozkion eskubideei eta bermeei buruzko martxoaren 24ko 8/2011 Foru Legean biltzen diren alderdiak betetzen ote diren ebaluatzeko. Aipatu behatokia jadanik sortua den “erkidego-osasunaren behatoki”aren menpekoa izanen da.

2. Osasun Departamentuak, sei hilabeteko epean, plan bat aurkeztuko du, aipatu foru legearen artikulua eta xedapenak betetzeko.

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Eleduna: José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan dadin ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan oinarrituta egotea haien diseinua.

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita azpiegitura publiko berri guztientzako betekizuna izan dadin ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan oinarrituta egotea haien diseinua.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Gure gizartean energia-kontsumoaren zati handi bat (% 40 inguru) eraikin publiko zein pribatuaren energia-gastutik sortzen da. Eraikuntzaren sektorean energia-kontsumoa murriztea eta iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea energiarekiko mendetasuna eta berotegi-efektuko gasen isuriak murrizteko neurrien zati garrantzitsuak dira.

Eraikinen efizientzia energetikoa hobetzeko neurriek kontuan hartu behar dituzte tokiko berezitasunak eta baldintza klimatikoak, bai eta barneko ingurunea eta errentagarritasuna ere, kostua-eraginkortasunaren ikuspegitik. Aipatu neurriek ez dituzte ukitu behar eraikinei aplikatzen zaizkien beste araudi batzuk, hala nola irisgarritasuna, segurtasuna eta eraikinarentzat aurreikusitako erabilera.

Neurriak behar ditugu gero eta eraikin gehiago, gaur egun efizientzia energetikoari dagokionez indarrean dauden gutxieneko baldintzak betetzeaz gain, energetikoki efizienteagoak izan daitezen, halaber, bai energia-kontsumoa bai karbono dioxidoaren isuriak murrizteagatik. Xede horrekin, planak prestatu behar dira, ia energia-kontsumorik gabeko eraikin gehiago egon dadin. Horiek horrela, aurreikuspen hori etxebizitzari buruzko lege berrian sartu da jadanik, babeseko etxebizitza berrien eraikuntzari begira.

Eraikinen energia-efizientziari buruzko 2010/31/EB Europako Zuzentarauak honela definitzen du "ia energia-kontsumorik gabeko eraikina": efizientzia energetiko oso handiko eraikina, behar duen energia ia deusez edo gutxi hori gehienbat iturri berriztagarrietatik hartutakoa duena, in situ edo inguruan ekoizitako iturri berriztagarrietako energia barne.

Zuzentarau horrek epe batzuk ere xedatzen ditu, estatuek eta administrazio publikoek errespetatu behar dituztenak, honako hauek ziurtatuta:

a) Beranduenez ere, 2020ko abenduaren 31n, eraikin berri guztiak ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izatea, eta,

b) 2018ko abenduaren 31z geroztik, okupatuta egon eta agintari publikoen jabetzakoak diren eraikin berriak ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izatea.

Eraikinak egokitu beharko zaizkie ia energia-kontsumorik ez duten eraikinei (ECCN) buruzko eskakizunei, Europatik iritsi baitira 2018an eta 2020an ezarriak izateko. Horrek eskatuko du eraikinak egiteko irizpide energetikoak eguneratzea, eraikuntza-xehetasun eta -irtenbide berrieekin, exe-

kuzioaren gaineko kontrol handiagoarekin, saiakerak berrieekin eta jarduketa konplexuagoekin.

Eraikinen klimatizaziorako hautatu behar dira efizientzia energetikoa duten instalazioak, eta CO₂ gutxien isurtzen dutenak. Esate baterako: errendimendu handiko bero-ponpak, aerotermiaren bidezko kondentsaziozkoak, biomasa-galdara bitartezko ur berorako instalazioa, LED argiak eta iturri berriztagarria izatearen bermea duen argindar-horridura.

Erabaki proposamena

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du legegintzaldi honetan lizitatuko diren azpiegitura publiko berri guztiak (eraikin berriak nahiz zaharberriak izan) eskakizun gisa izan dezaten haien diseinua ia energia-kontsumorik gabeko irizpideetan oinarritua egotea, Eraikinen energia-efizientziari buruzko 2010/31/EB Europako Zuzentaruaren eskakizunek aginduko duten bezala. Baldintza hori baldintza tekniko orrian jasoko da, hobekuntza gisa ez, baizik eta nahitaezko betekizun gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du lizitazio-prozesuan edo proiektuaren prestaketan dauden azpiegitura eta eraikinek aipatu irizpideetara egokitu dezaten diseinua, posible den tokietan eta eraikin berrietan zein zaharberrietan, alde aurretik kostua-eraginkortasunaren errentagarritasunaren gaineko azterlana aginda, aurreikusitako inbertsioa alderatuz eraikinen bizitza-zikloan zehar aurreztuko diren energia-kostuekin.

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Eleduna: Laura Pérez Ruano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko sinbolo berekiekiko bere babesa eta konpromisoa adierazten ditu, eta arbuiatu egiten du Nafarroako erakundeetan ikurrina paratzea.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko sinbolo berekiekiko bere babesa eta konpromisoa adierazten baititu, eta arbuiatu egiten baitu Nafarroako erakundeetan ikurrina paratzea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeko kide Javier Esparza Abaurrea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako mozio hau aurkezten du Osoko Bilkurarako, Mahaian eta Eledunen Batzarrean izapidetzeko:

Nafarroako Gobernuari babesa ematen dioten lau alderdiek haren onespenearekin iragarri dute ekimen bat aurkeztuko dutela Legebiltzarrean, foru erkidegoko sinboloei buruzko legea indargabetzeko helburuarekin, zertarako eta Nafarroako erakundeetan ikurrina –Euskal Autonomia Erkidegoko bandera– paratu ahal izan dadin. Hori Nafarroako bandera gutxiestea da, eta Nafarroa bere erakunde eta sinbolo berekiak dituen erkidego politiko berezitu gisa hartzearen aurkako eraso zuzeneko zat jotzen dugu.

Hori dela-eta, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Foru Komunitateko sinbolo berekiekiko bere babesa eta konpromisoa adierazten ditu, eta arbuiatu egiten du Nafarroako erakundeetan ikurrinak paratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Mozioa. Horren bidez, Estatuko Gobernu zentralari exigitzen zaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Estatuko Gobernu zentralari exigitzen baitzaio Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraits eta behin betikoz itxi dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozioa aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Azken urteotan, Japonian Fukushima hondamendi nuklearra gertatu ondoren, areagotu egin dira energia nuklearrarekiko alarma soziala eta energia nuklearra sortzeko instalazioen aurkako sentsibiltatea.

Etengabe plazaratu dira zentral nuklearrak ixtearen aldeko adierazpen instituzionalak; bereziki Santa María de Garoñakoa ixtekoa, Zoritakoa itxi ondoren Estatuko zaharrena baita.

Santa María de Garoñako zentral nuklearra Nuclenorren jabetzakoa da, zeinean Endesa eta Iberdrola enpresek % 50eko partaidetza bana baitute, eta 1971. urtean jarri zen abian. Instalaturiko potentzia 466 MGkoa da, eta hasiera batean aurreikusten zitzaion erabilera-bizitza 40 urtekoa zen; beraz, 2011n itxi behar zen, beranduenez ere.

Funtzionatzeko azken baimenaren indarraldia 2009an amaitzen zen, baina PSOEren gobernuak 2013ra arte luzatu zuen, ixteko erabakia PPren

goburuaren eskuetan utzirik. Fukushimako istripuaren ondotik (2011ko martxoa) egindako probek erakutsi zuten Garoña oso egoera txarrean zegoela eta obra garrantzitsuak egin beharko zirela segurtasun-arazoei aurre egiteko; horrek 150 milioi euroko inbertsioa ekarriko luke (kontuan hartu gabe Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren jarraibideen arabera ezarri beharko litzatekeen hozte-sistema berria).

Gaur egun, Garoña deskonektatuta dago Espainiako sare elektrikotik, eta erreaktorea 2012ko abenduaren 16tik geldituta, Nuclenorrek ez duelako eskatu baimenaren berritzea, segurtasun arazoientzat egin beharreko inbertsioek ekarriko luketen kostu handiaren ondorioz.

Ustiapenaren behin betiko amaiera 2013ko uztailaren 6an izan zen, eta gaur egungo egoera eraistearen aurrekoa da.

2014ko maiatzean Nuclenorrek Industria Ministerioari eskatu zion zentralaren erabilera-bizitza 2031ra arte luzatzea, erabilera-bizitza hirurogei urteraino eramanez.

Denbora horretan guztian Segurtasun Nuklearrereko Kontseiluak paper garrantzitsua izan du, eta guztiz jokabide iluna izan du Nuclenorren eskaeraren tramitazioan. Kontseiluak, Fernando Martí Energiaren estatu-idazkari ohia baitu buru, sinesgarritasun urria du, bere gidaritza gobernuaren alderdiari lotutako kideek osatzen dutelako.

Asmoa da, mix elektrikoari energia kopuru txikia ematen dion zentral bat berriro irekitzetik haratago, ateak irekitzea zentral nuklearren erabilera-bizitza 60 urteraino (momentuz) luzatzeari (Almaraz I eta II ustiatzeko baimena 2020an iraungitzen da), era horretan mantenduz eredu energetiko bat, energia nuklearra bezalako energia arriskutsu eta ez-berriztagarrietan oinarritua.

Pairatzen ari garen politika energetiko negargarria salatu behar dugu, xedea baitu zentral nuklearraren erabilera-bizitza luzatzea. Politika energetiko horretan honako neurri hauek ditugu: Plan Castor delakoaren milioietako gastua, denok ordaindu behar izan duguna; frackingari ateak irekitzearen zentzugabekeria, iturri berriztagarrietan oinarritutako autokontsumoaren gaineko errege dekretua, zeinak zigortzen eta oztopatzen duen herritarrek

beraien energia sortzeko duten eskubide zilegia eta geldiarazten duen energia berriztagarrien garapena.

Politika energetikoa diseinatuta dago industria pribatuaren eta lobby handien interesen neurria, eta enpresa handien administrazio kontseiluetako besaulkietan du sorburua, bertan esertzen direnek ardura izan baitute PPren eta PSOEn gobernuetan; esate baterako, Felipe González, José María Aznar, Elena Salgado, Manuel Pizarro edo Josep Borrell. Pertsona horiek garai batean goi mailako karguak bete zituzten administrazio publikoan eta, zenbait kasutan, zerikusia dute sektore elektrikoaren pribatizazioarekin.

Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak iragarri berri du onartu egiten duela Nuclenorren eskaera.

Garoa irekitzeko azken erabakia gobernuari dagokio. Zentral hori mantentzea arduragabekeria

bat izanen litzateke ikuspegi ekologiko, ekonomiko eta sozialetik, bai eta ikuspegi demokratikotik ere, gaur egun gobernu duen alderdiak ez duelako zilegitasunik horrelako neurri bat hartzeko, gizartearen gehiengoaren aurka.

Horregatik guztiagatik, Estatuko Gobernu zentralari zera exigitzen diogu:

1. Santa María de Garoñako zentral nuklearra lehenbailehen eraitsi eta behin betikoz itxi dezan.

2. Trantsizio energetikorako plan bat presta dezan, ekonomiaren eta ingurumenaren aldetik segurua eta jasagarria den eredu batean oinarritua.

Iruñean, 2017ko otsailaren 8an

Foru parlamentariak: Koldo Martínez Urionabarrenetxea, Dabid Anaut Peña, Laura Pérez Ruano eta José Miguel Nuin Moreno

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiatarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek kasuan kasuko jarduerarako aldez aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko araudi indardunarekin bat.

NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiatarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketan instalazio horiek kasuan kasuko jarduerarako aldez aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko araudi indardunarekin bat.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko.

Navarra de Suelo y Vivienda (Nasuvinsa) herri-tarren zerbitzuan dagoen sozietate publiko bat da. Bere egitekoa da Nafarroako Foru Komunitatearen lurralde- eta hirigintza-garapen iraunkorra, lur- eta higiezin-sustapenarekin eta -kudeaketarekin batera. Bere zuzemenean artean dago lokal eta instalazio industrialak merkaturatzea eta alokatzea. Aldi berean, horietan gertatzen diren gorabeherak artatzen eta kudeatzen ditu.

Egiatzatu dugunez, ekintzailtzarako dauzkan lokal industrialak zenbaitetan bukatu gabe daude, segurtasun industrialeko arauetan eskatzen diren egokitzapenei dagokienez. Horrek berekin dakar errentatzaileak gastu gehigarriak edukitzea bere negozioa abian jartzerakoan.

Enpresaren xede publikoa ikusita, eta bere asmoa ekintzailtzaren garapen ekonomikoan laguntzea denez, batez ere Nafarroako eremu behartsuetan, talde sozialistak honako erabaki-proposamen hau aurkezten du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du, titulartasun publikoko instalazio industrialen nahiz bizitegiatarako ez diren eraikin osoen alokairuen kudeaketari dagokionez, instalazio horiek kasuan kasuko jarduerarako aldez aurretik egokituta egon daitezen, segurtasunari, babesari eta bestelakoei buruzko araudi indardunarekin bat.

Iruñean, 2017ko otsailaren 7an

Eleduna: María Chivite Navascués

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jasok aurkezturiko mozioa, jabeldura batean jatorria duena, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jasok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, 9-17/ITP- 00002 espediente-zenbakiko jabelduratik eratorria, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko.

Iragan ostegunean, otsailaren 9an, parlamentu-talde honek aurkeztutako jabeldura bat eztabaidatu zen, medikamentuen erabilera eta farmazia-gastua direla-eta. Eztabaidan zehar azaldutako datuak kezagarriak dira, bai farmazia-gastuaren igoera progresiboaren ikuspuntutik, bai egungo osasun-ereduarenetik, medikalizatuegi baitago.

Lehenik eta behin, osasun-gastuaren ikuspuntutik esan beharra dago farmazia-gastuak osasun-aurrekontu osoaren % 25 eta Nafarroako aurrekontu osoaren % 6,63 egiten duela gaur egun. Alegia, aurrekontu-betekizun horrek, nolabait, hipotekatu egiten du bestelako jarduketak batzuei ekin ahal izatea osasun-laguntzaren kalitatea hobetzeko, prebentzio-programak hobetzeko, eta abar.

Igoera progresiboa eta deigarria da azken urteotan: 2017ko aurrekontuan 248 milioi jasotzen dira farmazia- eta medikamentu-prestazioetarako:

2016an baino % 7,3 gehiago; 2015ean baino % 13,75 gehiago; 2014an baino % 22,27 gehiago, eta 2013an baino % 32,6 gehiago.

Gainera, argi dago kontu-sail horiek beharrezkoa zenaren azpitik egon izan direla historikoki aurrekontuan jasota; hori dela-eta kreditu-gehikuntzak egin behar izan dira, eta horrek zailagoa egiten du aurrekontu-kudeaketa. Adibidez, 2010ean 50 milioi eurotik gorako kreditu-gehikuntzak egin ziren; 2012an, berriz, 40 milioioak, eta 2016an sei milioi baino gehiago handitu da aurrekontua.

Bigarrenik, zenbateko horiek agerian uzten dute eredu medikalizatu bat daukagula gaur egun, oraindik ere asko aldatu behar dena eredu prebentiboago eta integralago batean oinarrituta egoteko.

Egia da Gaixo kronikoentzako laguntzari buruzko planak, Osasun planak, Osasun Publikoaren planak edo Osasun Mentalari buruzko planak helburu gisa jasotzen dutela medikamentuen erabilera egokia eta arrazoizkoa izatea eta bizitzaren zenbait alderdi desmedikalizatzea, eta horretarako zenbait lan-ildo ezartzen direla; esate baterako, osasuna eta bizimodu osasungarriak sustatzeko programak, ariketa fisikoa egitea, eta abar.

Egia da, halaber, badirela zenbait faktore objektibo farmazia-gastuaren igoera neurri batean azaltzen dutenak. Horien artean nabarmendu behar dira onkologiako medikamentu berriak edo azken belaunaldiko antibiral berriak sartzea, zeinek farmazia-gastu osoaren % 50 baitakarte, eta zaila da horien prezioan eragitea. Agerikoa da orobat populazioa zahartuz doala eta handituz doazela kronikotasuna nahiz pertsona pluripatologikoen kopurua, eta horrek ere areagotu egiten du medikalizazioa.

Edozein modutan ere, uste dugu urteak daramatzagula egoera honi buelta eman ezinik, hainbat neurri abian jarri diren arren. Horregatik guztiagatik, gure ustez ezinbestekoa da gai honi zor zaion garrantzia ematea, bai farmazia-gastuak aurrekontuan duen inpaktuagatik, bai beste osasun-eredu batean aurrerabidea egiteko premiagatik (ez hain farmakologikoa, integralagoa eta erdigunea gehiago jarriko duena prebentzioan eta osasunaren sustapenean).

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du berariazko plan bat taxutu dezan medikamentuen erabilera arrazoizkoa izan dadin eta farmazia-gastuari mugapean eusteko; hartan jasoko dira jada ezarritako neurriak eta abian jarri nahi diren beste batzuk. Plan hori hiru hilabeteko gehieneko epean aurkeztuko da Osasun Batzordean, eta honako hauek jasoko ditu, gutxienez ere:

a. Medikamentuen erabilera arrazoizkoa izateko eta farmazia-gastuari mugapean eusteko neurri zehatzak eta neurgarriak, osasun-laguntzaren alderdi eta maila ezberdinetan.

b. Profesionalak prestatzeko eta inplikatzeko tresnak.

c. Erabiltzaileak eta, oro har, herritarrak prestatzeko eta kontzientziatzeko tresnak.

d. Ekintza zehatzak, arduradun zehatzekin.

e. Ebaluaziorako adierazle objektiboak eta neurgarriak.

f. Planaren azken ebaluazioa bi urteko epean gutxi gorabehera egiteko konpromisoa –legegintzaldi hau bukatu baino lehen betiere–, eta plan hori Nafarroako Parlamentuan aurkeztea.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu premiatzen du aukera guztiak azter ditzan eta bere esku dauden tresna guztiak erabil ditzan farmazia-industriarekin negoziatu ahal izateko, farmazia-prezioan eragin ahal izateko xedez.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da bermatzen ari delako nafar ikasle guztiek D ereduan ikasteko duten eskubidea.

GEROA BAI, EH BILDU NAFARROA ETA PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEEK ETA IZQUIERDA-EZKERRAKO FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DUTE

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Geroa Bai, EH Bildu Nafarroa eta Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeek eta Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentua pozik agertzen baita bermatzen ari delako nafar ikasle guztiek D ereduan ikasteko duten eskubidea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzeta, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Behean sinatzen duten parlamentu-taldeek, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten dute, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Legebiltzarrean orain dela urtebete Euskararen Legea aldatu ostean, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak lehendabiziko aldiz eremu ez euskalduneari eskaini zuen D eredua. Heldu den ikasturterako berritasun gisa, 14 erreferentzia-ikastetxe sortuko dira, herri ezberdinetako eskabideak jaso ahal izanen dituztenak. Eskararen arabera erabakiko da ea azkenean eredua eskaintzen den.

Behean sinatzen dugun parlamentu-taldeok balioetsi egiten dugu urrats hau; izan ere, nafar ikasle guztien hizkuntza eskubideak bermatzen ditu. Horrenbestez, honako erabaki proposamen hau aurkezten dugu:

1. Nafarroako Parlamentua pozik agertzen da Euskarari buruzko Legea aldatzearen ondorioz bermatzen ari delako nafar ikasle guztiek D ere-

duan ikasteko duten eskubidea, alde batera utzita Nafarroako zein herritan bizi diren.

2. Nafarroako Parlamentuak arbuia egiten du zenbait herritan egindako kanpaina, euskararen eta D ereduaren aurka pozoitzea eta manipulaztea

bilatzen zuten panfletoak modu anonimoan zabalduz eginikoa.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Foru parlamentariak: Isabel Aramburu Bergua, Esther Korres Bengoetxea, Laura Pérez Ruano eta Marisa de Simón Caballero

Mozioa. Horren bidez, Hezkuntza Departamentua premiatzen da eskola-mapa eta kasuko ikastetxe-sarea gaurkotu ditzan eta horien plangintzaren jarraipena egin dezan.

PODEMOS-AHAL DUGU PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Hezkuntza Departamentua premiatzen baita eskola-mapa eta kasuko ikastetxe-sarea gaurkotu ditzan eta horien plangintzaren jarraipena egin dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Hezkuntza-eskubidea eskubide unibertsal bat da, eta botere publikoen betebeharrak da eskubide hori herritar guztientzat baliagarri egitea berdintasun-baldintzetan eta, hortaz, dohainik. Eskola publikoa da, hain zuzen ere, oinarritzeko eskubide hori asetzeko tresna, hezkuntza-sistema eta bere maila guztiak barnebiltzen dituen erakunde gisa ulertuta, eta administrazio publikoei dagokie hori arautzea eta bermatzea.

Hezkuntza publikoa da gizartearen lorpen handienetako bat, eta utziezina da, beraz, gizartearen kohesio eta justizia sozialaren zerbitzuan dagoen tresna den aldetik.

Gogora ekarri nahi dugu 2016ko maiatzeko bilkura monografikoan onetsitako hamazazpigarren erabakia:

Nafarroako Parlamentuak beharrezkotzat jotzen du Nafarroako irakaskuntza publikoa sustatu, lehenetsi eta garatzea, halako moldez non Nafarroako hezkuntza eskaintza egituratuko duen, eta irakaskuntza zein ikastetxe eredu bat sustatuko duen, inklusiboa, sozializatzailea, laikoa, ez-sexista, demokratikoa, parte-hartzailea, eleaniztuna, ingurune fisiko-sozialean txertatua, desberdintasunen berdintzailea eta guztien eskola arrakasta bermatzeko behar diren baliabide guztiez hornitua.

Erabaki proposamena

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentua premiatzen du honako hauek egin ditzan:

1. Eskola-mapa eta horri dagokion ikastetxe-sarea gaurkotu ditzan eta horien plangintzaren epe motzeko eta ertaineko jarraipena egin dezan.

2. Egun dauden ikastetxe publikoak ahal den guztia erabil ditzan, haiei etekinik handiena ateraz.

3. Ikastetxe berriak diseinatu eta eraiki ditzan halako moduan non aldatu eta handitzeko modukoak izanen baitira, betiere haien erabilera soziala sustatuz eta haien zentralitatea bilatuz, herriaren artikulazioa errazteko. Ikastetxeak abegikorak, ekologikoak eta energetikoki iraunkorak izan dai-

tezen, eta kontuan har dezaten, batez ere patioetan, genero-ikuspegia, bai eta LGBTIrena ere.

4. Pairatutako murrizketei amaiera eman ahal izateko jarraitu beharreko ibilbide-orria planifikatzea, sindikatuekin batera, eskola-itun berri baten bidez (ratioak, irakastorduak, ordezkapenak eta abar), eskola publikoaren kalitatea hobetzen jarraitu ahal izateko.

5. Irakasleentzako prestakuntza-plan bat ezartzea, egungo erronkei erantzuten diena, berrikuntza etengabea eta jardunbide egokiak ahalbidetuko dituen, etekina atereaz irakasleen nahiz administrazioaren ahaleginei.

6. Irakasleen egonkortasuna bultzatzea eta plantilletako bitarteko langileen kopurua murriztu dezan, halako moduan non talde didaktikoak sortzea eta sendotzea eta egiten ari diren proiektuak sendotzea ahalbidetuko baita.

7. Ikastetxe publikoentzako laguntza ekonomikoa ziurta dezan, jatorri ekonomikoari zor zaizkion desberdintasunak konpentsatu ahal izateko.

8. Ildo estrategiko batzuk defini ditzan, bai eta kasuko egutegia, baliabideak, adierazleak eta aldizkako ebaluazioa ere.

9. Berdintasunaren aldeko eta diskriminazio-mota ororen aurkako plan bat taxutu dezan.

10. Ez dadila ikaslerik gera, bere borondatearen kontra, ikastetxetik at programatutako hezkuntza-jardueretan parte hartzeko aukerarik gabe –sarritan, eskola publikoko ikasleen zenbait sektore kultur edo kirol jardueretan parte hartu gabe gelditzen dira horretarako ahalmen ekonomikorik ez dutelako (aste txuria, txangoak, interpretazio-zentroetara edo museoetara egindako bisita gidatuak, eta abar)–. Zuzendaritzek, tutoreekin eta orientazio-zerbitzuekin, beharizan horiek ase ditzaten, eta eraginkortasunez eta diskrezioz joka dezaten, Hezkuntza Departamentuaren zalan-tzarik gabeko eta lehentasunezko laguntzarekin. Halaber, azpielikatutako ikasleen oinarrizko beharizanetarako diru-laguntzak eman ditzan.

Iruñean, 2017ko otsailaren 9an

Eleduna: Laura Pérez Ruano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da urgentziaz taxutu dezan Nafarroako Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen urgentziaz taxutu zezan Nafarroako

Merkataritza Modernizatzeko IV. Plana, eta 2016ko urtarrilaren 28ko 9. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera hezkuntza erkidegoan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen hartu beharreko neurriak har ditzan, San Adriango Haur eta Lehen Hezkuntzako “Alfonso X

El Sabio” ikastetxe publikoa handitzeko proposamen bat aurkezte eta eztabaidatze aldera, eta 2016ko uztailaren 1eko 94. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da hartu beharreko neurriak har ditzan dislexia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen zen hartu beharreko neurriak har ditzan disle-

xia duten ikasleei hezkuntza-inklusioaren printzipioa bermatzeko, eta 2016ko urriaren 14ko 117. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen dira beren eskumen-eremuan talka-plan bat aplikatu dezaitez, honako helburu hauek izanen dituenak: eskola-porrota, segregazio goiztiarra eta ikasleen kanporatzea geldiaraztea, ikastetxeetan demokrazia berrezartzea, ekitatea hobetzea eta Unibertsitateko irakasleen kidegoetara sartzeko akreditazio nazionala ezartzen duen Errege Dekretua geldiaraztea.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Podemos-Ahal Dugu eta Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeek eta Ezkerreko-Ezkerreko foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa erretiratu izanari dagokionez. Mozioaren bidez Nafarroako Gobernua eta Espainiako Gobernua premiatzen ziren beren eskumen-eremuan talka-plan bat aplikatu zezaten, honako helburu hauek izanen zituenak: eskola-porrota, segregazio goiztiarra

eta ikasleen kanporatzea geldiaraztea, ikastetxeetan demokrazia berrezartzea, ekitatea hobetzea eta Unibertsitateko irakasleen kidegoetara sartzeko akreditazio nazionala ezartzen duen Errege Dekretua geldiaraztea. Mozioa 2016ko irailaren 22ko 109. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak abiaraz dituzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan.

LEHENDAKARITZAKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, BARNEKO ETA JUSTIZIAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Lehendakaritza, Funtzio Publiko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetu dadin Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gure erkidegoan telelana babesteko eta sustatzeko ekintzak

abiaraz dituzan eta Nafarroako administrazio publikoaren enplegu publikoaren arloan telelana sustatzeko programa bat gara dezan. Mozioa 2016ko irailaren 30eko 111. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak babestu egiten baitu Hiesa gaixotasun infekto-transmitigarri gisa hartzea hemendik aitzina.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2017ko otsailaren 13an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak babestu egiten du SEIMC-Gaixotasun Infekziosoen eta Mikrobiologia Klinikoaren Espainiako Sozietateko GESIDA-Hiesa Aztertzeke Taldeak eskatutako aldaketa, hiesa gaixotasun infekto-transmitigarri gisa har dadin hemendik aitzina, eta ez, orain arte bezala, gaixotasun infekto-kutsakor gisa.

2. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du #conVIHesposible kanpainarekin, zeinak sare sozialen bidez bilatzen baitu kontzientziatzea arazo horretaz eta GIB eramaileek pairatzen duten gizarte- eta lan-bazterketaz”

Iruñean, 2017ko otsailaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

